

## Komunikazioko ikasleek etxe-sartzea egin dute Aretxabaletan

2012/09/18

Goizeko 08:00etan sartu dira ikasleak Aretxabaletako campus berrian, jakinminenez ikusteko zelakoa den bertako eraikina. Lehen orduan **Nekane Arratibelek** egin die ongi etorria, HUHEZIKo dekanok, azalduta zer-nolako oztopoak gainditu behar izan dituen unibertsitateak campus berria martxan jartzeko.

Ondoren, ikasleak solairuz solairu joan dira eraikina bisitatzeko: ikasgelak, areto nagusia, atsedeen lekuak, informatika gela, jangela, kafe makinak, irakasleen gela, edizio gela, irratia, liburutegia... Oro har, oso inpresio ona jaso dute, eraikina oso ondo banatuta dagoelako, txukun, eta, bestetik, baliabide asko eta onak izango dituztelako komunikazioa lantzeko.

Asteartea harrera eguna izan da, ikasleek ikas dezaten zer non dagoen. Asteazkenetik aurrera, berriz, eskolak hasiko dira, normal.

